

Ibaiondoko heziketa zentroko hezitzaileen lan-poltsa

1. ariketa
Teorikoa
A EREDUA

Data: 2019/01/18



1 80/2009 DEKRETUA, APIRILAREN 21EKOA, ASKATASUNAZ GABETZEKO NEURRIAK BETEARAZTEN DITUZTEN EAEKO IKASTETXEEI BURUZKOAREN XEDEA DA BETEKIZUN HAUEK ARAUTZEA:

- 1a) Gazte-justiziako neurri desberdinak betearazteko zentroek eduki beharko lituzketen betekizun materialak, egiturazkoak eta okupaziokoak arautzea.
- 1b) Askatasuna kentzeko neurri desberdinak betearazteko zentroek eduki beharko lituzketen betekizun materialak, egiturazkoak eta okupaziokoak arautzea.
- 1c) Gazte-justiziako neurri desberdinak betearazteko zentroek eduki beharko lituzketen betekizun materialak, funtzionalak eta langile-betekizunak arautzea.
- 1d) Askatasuna kentzeko neurri desberdinak betearazteko zentroek eduki beharko lituzketen betekizun materialak, funtzionalak eta langile-betekizunak arautzea.

2 APIRILAREN 21EKO 80/2099 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, ZENTROEN HELBURUA DA HONAKO HAU:

- 2a) Barneratzeko, barneratze terapeutikoko eta asteburuko egonaldiko neurriak betearaztea, agintari judizialak ezarritako erregimenaren arabera.
- 2b) Barneratzeko, barneratze terapeutikoko eta asteburuko egonaldiko neurriak betearaztea, gizarte-zerbitzuen alorrean eskumena duen Sailak ezarritako erregimenaren arabera.
- 2c) Barneratzeko eta asteburuko egonaldiko neurriak betearaztea, eskumena duen Familia Epaitegiak ezarritako erregimenaren arabera.
- 2d) Barneratzeko, barneratze terapeutikoko eta asteburuko egonaldiko neurriak betearaztea, justiziaren alorrean eskumena duen Sailak ezarritako erregimenaren arabera.

3 APIRILAREN 21EKO 80/2099 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, HONELA BETEARAZIKO DIRA NEURRI JUDIZIALAK:

- 3a) Adingabeen Epaitegi edo Familia Epaitegi eskudunaren kontrolpean, 5/2000 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedaturiko moduan.
- 3b) Adingabeen Epaitegi eskudunaren kontrolpean, 5/2000 Lege Organikoaren 44. artikuluan xedaturiko moduan.
- 3c) Justizia alorrean eskumena duen Sailaren kontrolpean, 5/2000 Lege Organikoaren 44. artikuluan xedaturiko moduan.
- 3d) Adingabeen Epaitegi edo Familia Epaitegi eskudunaren kontrolpean, 5/2000 Lege Organikoaren 44. artikuluan xedaturiko moduan.

4 APIRILAREN 21EKO 80/2099 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, NEURRIEN BETEARAZPENEN PRINTZPIO GIDARI GISA, NEURRIEN BETEARAZPENA PRINTZPIO HONETAN OINARRITUKO DA:

- 4a) Gutxieneko esku-hartzearen printzipioan, horren alderdi juridikoan eta hezitzailean.
- 4b) Esku-hartze sozialaren printzipioan, horren alderdi arauemailean eta hezitzailean.
- 4c) Esku-hartze sozialaren printzipioan, horren alderdi juridikoan eta hezitzailean.
- 4d) Esku-hartze proportzionalaren printzipioan, horren alderdi arauemailean eta hezitzailean.

5 APIRILAREN 21EKO 80/2009 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, NEURRIEN BETEARAZPENEN PRINTZIPIO GIDARIETAKO BAT DA NEURRIAREN BETEARAZPENAREN EDO ADINGABEAREN INGURUKO FUNTSEZKO ELEMENTUENTZAT ONDORIOAK DITUZTEN EDO IZAN DITZAKETEN ERABAKIAK HONELA HARTUKO DIRELA:

- 5a) Ikastetxeko zuzendariak hartuko ditu, eta diziplina anitzeko edukia izango dute.
- 5b) Gazte Justiziako Zerbitzuak hartuko ditu, eta diziplina anitzeko edukia izango dute.
- 5c) Aho batez hartuko dira eta diziplinarteko edukia izango dute.
- 5d) Modu kolegiatuan hartuko dira eta diziplinarteko edukia izango dute.

6 APIRILAREN 21EKO 80/2009 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, IKASTETXEETAN HARTUTAKO PERTSONEK HONAKO ESKUBIDE HAU IZANGO DUTE:

- 6a) Bere kargura dauden bost urtetik beherako seme-alabak ondoan izateko eskubidea.
- 6b) Banakako Hezkuntza Proiektu bat izateko eskubidea, eta proiektua lantzen eta haren aldizkako ebaluazioan parte hartzeko eskubidea.
- 6c) Hileko soldata bat izateko eskubidea.
- 6d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

7 APIRILAREN 21EKO 80/2009 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, ONGIZATE EMOZIONALAREN ARLOAN BANAN-BANAN ANTOLATU BEHARKO DA ARRETA. NOLA ANTOLATUKO DA?

- 7a) Koordinatzailearen edo tutorearen figuraren bitartez. Pertsona horrek banakako zaintzako guneak izango ditu hamabostean behin gutxienez.
- 7b) Hezitzailearen edo tutorearen figuraren bitartez. Pertsona horrek banakako zaintzako guneak izango ditu hamabostean behin gutxienez.
- 7c) Hezitzailearen edo tutorearen figuraren bitartez. Pertsona horrek banakako zaintzako guneak izango ditu astean behin gutxienez.
- 7d) Koordinatzailearen edo tutorearen figuraren bitartez. Pertsona horrek banakako zaintzako guneak izango astean behin gutxienez.

8 APIRILAREN 21EKO 80/2009 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, I. MAILAKO ZENTROEI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?:

- 8a) Ezingo dira mistoak izan. Bizikidetzaren unitate bakoitzeko ezingo dute 8 leku baino gehiago eduki, eta, guztira, 40 baino gehiago ez. Talde bakoitzeko gutxienezko hezitzaile kopurua 8 izango da.
- 8b) Mistoak izan ahalko dira. Askatasuna gehien kentzen duten neurriak beteko dira. Bizikidetzaren unitate bakoitzeko ezingo dute 9 leku baino gehiago eduki, eta, guztira, 40 baino gehiago ez.
- 8c) Mistoak izan ahalko dira. Bizikidetzaren unitate bakoitzeko ezingo dute 8 leku baino gehiago eduki, eta, guztira, 39 baino gehiago ez. Talde bakoitzeko gutxienezko hezitzaile kopurua 10 izango da.
- 8d) Ezingo dira mistoak izan. Askatasuna gehien kentzen duten neurriak beteko dira. Bizikidetzaren unitate bakoitzeko ezingo dute 9 leku baino gehiago eduki, eta, guztira, 39 baino gehiago ez.

- 9 APIRILAREN 21EKO 80/2099 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, I. MAILAKO ZENTROETAN, NORK HARTUKO DU BERE GAIN KUDEAKETA?**
- 9a) Ahal dela, Justiziako eskumenak dituen saileko langileek, zuzenean.
9b) Justiziako eskumenak dituen saileko langileek baino ez, zuzenean.
9c) Ahal dela, zeharkakoa izango da, eta Erakundeen Erregistroan izena emanda dauden irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteek hartuko dute beren gain.
9d) Zeharkakoa izango da, eta Erakundeen Erregistroan izena emanda dauden irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteek hartuko dute beren gain.
- 10 APIRILAREN 21EKO 80/2099 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, I. MAILAKO ZENTROETAN ZENTROKO ARDURADUN BAT EGONGO DA, ETA, HORREZ GAIN:**
- 10a) Gizarte-langile bat eta 10 hezitzaile bizikidetzta-unitate bakoitzeko.
10b) Psikologo bat 15 plaza bakoitzeko eta 8 hezitzaile bizikidetzta-unitate bakoitzeko.
10c) Psikologo bat 25 plaza bakoitzeko eta 10 hezitzaile bizikidetzta-unitate bakoitzeko.
10d) Diziplina anitzeko lantalde bat, eta koordinatzaile bat bizikidetzta-unitate bakoitzeko.
- 11 APIRILAREN 21EKO 80/2099 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, HAUEK IZANGO DIRA HEZITZAILEEN EGINKIZUNAK:**
- 11a) Bere unitateko pertsonen hasierako, jarraipeneko, gorabeheren eta berriz integratzeko txostenak egiteko ardura hartzea.
11b) Zentroko kontrol- eta segurtasun-lanak egitea. Zentroa zaintzeko eta mantentzeko erantzukizuna hartzea.
11c) Zentroan dauden pertsonen buruzko txosten teknikoak egitea.
11d) Bilatzeko eta eskuragarri egoteko zaintzak egitea, hala badagokio.
- 12 APIRILAREN 21EKO 80/2099 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, NORK BAIMENDUKO DITU PROGRAMATUTAKO IRTEERAK?**
- 12a) Bizikidetzta-unitateko koordinatzaileak.
12b) Barneratuta dagoen pertsonaren tutore den hezitzaileak.
12c) Zentroko zuzendariak.
12d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
- 13 ADINGABEAREN BABES JURIDIKOARI BURUZKO 1/1996 LEGE ORGANIKOAK EZARRITAKOAREN ARABERA, ERAKUNDE PUBLIKOAK ANTZEMATEN DUENEAN ADINGABEA BABESGABEZIA-EGOERAN DAGOELA, ERAKUNDE HORREK BERE GAIN HARTUKO DU:**
- 13a) Adingabearen guraso-ahala.
13b) Adingabearen zaintza.
13c) Adingabearen tutoretza.
13d) Adingabearen kuradoretza.

14 1/1996 LEGE ORGANIKOAK EZARRITAKOAREN ARABERA, HELBURUA KONTUAN IZANIK, FAMILIA-HARRERAK HURRENGO MODALITATEAK IZAN DITZAKE:

- 14a) Adopzio aurrekoa, iraunkorra edo soila.
- 14b) Soila, iraunkorra edo tutoretza.
- 14c) Adopzio aurrekoa, tutoretza edo iraunkorra.
- 14d) Soila, iraunkorra edo aldi baterakoa.

15 1/1996 LEGE ORGANIKOAK EZARRITAKOAREN ARABERA, ERAKUNDE PUBLIKOAK BERE GAIN HARTUKO DU ZAINZTA, BALDIN ETA:

- 15a) Adingabeek askatasuna kentzen ez duten neurriak betetzen badituzte, 5/2000 Lege Organikoan aurreikusita daudenak.
- 15b) Gurasoek ezin badute zaindu adingabea, gorabehera larriengatik.
- 15c) Ministerio Fiskalaren ebazpena badago.
- 15d) Ministerio Publikoaren ebazpena badago.

16 1/1996 LEGE ORGANIKOAK EZARRITAKOAREN ARABERA, JOKABIDE-ARAZOAK DITUZTEN ADINGABEEI BABESTEKO ZENTROETAN EGOITZA-HARRERA EGITEKO, ZER BEHAR DA?

- 16a) Adingabeen Epaitegiaren baimena.
- 16b) Adingabeen Fiskaltzaren baimena.
- 16c) Epailearen baimena aurretik.
- 16d) Gurasoen edo legezko tutoreen baimena.

17 1/1996 LEGE ORGANIKOAK, JOKABIDE-ARAZOAK DITUZTEN ADINGABEEI BABESTEKO ZENTROETAN EGOITZA-HARRERA EGITEARI DAGOKIONEZ, HONAKO HAU EZARTZEN DU:

- 17a) Ezin izango dira halako zentroetan barneratu gaixotasun edo nahasmendu mentalak dituzten adingabeak, baldin eta osasun mentalaren zaintzaren esparruan eskumena duten zerbitzuen tratamendu espezifikoak jasotzeko beharra badute.
- 17b) Ezin izango dira halako zentroetan barneratu Lege honetako 19. artikuluan aurreikusitako borondatezko zaintza egoeran dauden adingabeak.
- 17c) Ezin izango dira barneratu desgaitasuna duten adingabeak.
- 17d) Ezin izango dira barneratu mendekotasunaren balorazioa eginda ez daukaten adingabeak.

18 1/1996 LEGE ORGANIKOAK EZARRITAKOAREN ARABERA:

- 18a) Erreformako erakunde publikoak esleituta duen tutoretza bereganatzen duenean, eten egiten da tutoretza arrunta.
- 18b) Erakunde publikoak esleituta duen tutoretza bereganatzen duenean, eten egiten da guraso-ahala edo tutoretza arrunta.
- 18c) Erakunde publikoak esleituta duen tutoretza bereganatzen duenean, eten egiten da zaintza.
- 18d) Erakunde publikoak esleituta duen tutoretza bereganatzen duenean, eten egiten da zaintza eta kuradoretza.



19 HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTEKO ETA BABESTEKO 3/2005 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, EUSKO JAURLARITZAK, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN, TALDE PSIKOSOZIAL ESPEZIALIZATUAK IZANGO DITU LAGUNTZA TEKNIKOA ETA AHOLKUA EMATEKO...

- 19a) Ikastetxeei eta gazte-justiziaren toki irekietako zerbitzuei.
- 19b) Gazte-justiziaren zerbitzuari.
- 19c) Fiskalei eta adingabeen epaileei.
- 19d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

20 3/2005 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, EUSKO JAURLARITZAK HONAKO HAU BERMATUKO DU:

- 20a) Herrizaingoaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, adingabeek parte hartzen duten kasuetan polizia-zerbitzu egokiak izango direla.
- 20b) Justiziaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, adingabeek parte hartzen duten kasuetan polizia-zerbitzu egokiak izango direla.
- 20c) Gizarte-laguntzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, adingabeek parte hartzen duten kasuetan polizia-zerbitzu egokiak izango direla.
- 20d) Adingabeen epaitegien bitartez, adingabeek parte hartzen duten kasuetan polizia-zerbitzu egokiak izango direla.

21 3/2005 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, BARNERATZE-NEURRIAK ARAU-HAUSLE ADINGABEENTZAT BERARIAZ PRESTATUTAKO BARNETEGIETAN BETEARAZIKO DIRA. HORREZ GAIN:

- 21a) Barnetegi horietan ez dira hartuko, inolaz ere, 15 urtetik beherako pertsonak.
- 21b) Barnetegi horietan ez dira hartuko, inolaz ere, 21 urtetik gorako pertsonak.
- 21c) Barnetegi horietan ez dira hartuko, inolaz ere, 18 urtetik gorako pertsonak.
- 21d) Barnetegi horiek adin-nagusitasun penala dutenentzat aurreikusitakoak ez bezalakoak izango dira.

22 3/2005 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, FORU ALDUNDIEI DAGOZKIE EGINKIZUN HAUEK:

- 22a) Arriskuan dauden haur eta nerabeak zaintzeko beharrezko irizten zaien zerbitzu eta zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea.
- 22b) Babesgabetasun larrian edo babesgabezia dauden haur eta nerabeak zaintzeko beharrezko irizten zaien zerbitzu eta zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea.
- 22c) Arriskuan dauden edo delitu ez larriak egiteagatik neurri judizialak dituzten haur eta nerabeak zaintzeko beharrezko irizten zaien zerbitzu eta zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea.
- 22d) Haurrentzako eta nerabeentzako jarduketan eta gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra.



23 3/2005 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, JUSTIZIA ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILARI DAGOZKIO EGINKIZUN HAUEK:

- 23a) Arriskuan dauden edo delitu ez larriak egiteagatik neurri judizialak dituzten haur eta nerabeak zaintzeko beharrezko irizten zaien zerbitzu eta zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea.
- 23b) Babesgabetasun larrian edo babesgabezia dauden haur eta nerabeak zaintzeko beharrezko irizten zaien zerbitzu eta zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea.
- 23c) Adingabeen epaitegiek pertsona adingabeei dagokienez hartutako neurriak betearaztea.
- 23d) Jokabide-arazo larriak dituzten adingabeentzako barneratze-zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea.

24 ZER DA ZENTROKO HEZIKETA PROIEKTUA (IHP)?

- 24a) Ikastetxearen Heziketa Proiektua, non ikastetxearen nortasunaren gidari diren printzipio psiko-sozio-pedagogikoak biltzen diren.
- 24b) Ikastetxearen Heziketa Proiektua, Europako Gazte Justiziaren planak arautzen dituena.
- 24c) Ikastetxearen Heziketa Proiektua, politika kriminal konparatiboak definitzen dituena.
- 24d) Ikastetxearen Heziketa Proiektua, beste erakunde batzuen esku-hartze konparatiboak garatzen dituena.

25 IHP-REN ARABERA, IBAIONDO HEZIKETA-ZENTROAK ADINGABEEN EPAITEGIEK EZARRITAKO NEURRI JUDIZIALAK DITUZTEN ADINGABEAK HARTUKO DITU. ZEIN ADINETIK AURRERA?

- 25a) 12 urtetik aurrera.
- 25b) 13 urtetik aurrera.
- 25c) 14 urtetik aurrera.
- 25d) Berdin dio, baldin eta neurri bat betearaztea eskatzen duen auto judizial bat badago.

26 IHP-REN ARABERA, IBAIONDO HEZIKETA-ZENTROAREN HELBURUETAN ALDERDI HAUEK HARTZEN DIRA KONTUAN:

- 26a) Zehapen- eta hezkuntza-erantzuna, arreta oso eta banan-banakoarekin.
- 26b) Esku-hartzea ingurune irekian.
- 26c) Zigortzeko esku-hartze argia
- 26d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

27 IHP-REN ARABERA, IBAIONDO HEZIKETA-ZENTROAREN BARNE-SEGURTASUNA ETA ZAINZA BERMATZEKO JARDUNAK NOREN ARDURA IZANGO DIRA?

- 27a) Segurtasuneko enpresa pribatu bateko langileena.
- 27b) Adingabeen Epaitegietako laguntza emateko langileena.
- 27c) Ertzaintzarena.
- 27d) Polizia Nazionalarena.

- 28 IHP-REN "ESPARRU BATERATZAILEAK" (ESPARRU TEORIKOA) HAINBAT ESKU-HARTZE EREDU LABURBILTZEN DITU. HAUEK DIRA:**
- 28a) Harreman-eredua, eredu ekologikoa eta ingurumen arloko eredu.
 - 28b) Harreman-eredua, eredu kognitibo-konduktuala eta toxikomanietan esku hartzeko eredu.
 - 28c) Eredu kognitibo-konduktuala eta erresonantzien eredu.
 - 28d) Eredu ekologikoa, familia-eredua eta toxikomanietan esku hartzeko eredu.
- 29 IHP-REN ARABERA, ADINGABEEN EPAITEGIETARA ETA ERAKUNDE DESBERDINETARA IGORTZEN DIREN TXOSTENETAN ARLO HAUEK AZTERTZEN ETA ISLATZEN DIRA:**
- 29a) Arlo pertsonala, arlo familiarra, eguneroko bizitzaren eta harremanen arloa ikastetxean.
 - 29b) Helburu judizialen arloa.
 - 29c) Langileen eta bikotekide-arloa.
 - 29d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
- 30 IHP-REN ARABERA, FASEEN SISTEMA HEZKUNTZA- ETA ANTOLAKETA-SAILKAPEN BAT DA, ADINGABEEN HEZKUNTZA-PROIEKTUEN SEKUENTZIA-PROZESUA GAUZATU AHAL IZATEKO. ZENBAT ATAL DITU?**
- 30a) Harrera-aldia eta 5 fase.
 - 30b) Harrera-aldia eta 4 fase.
 - 30c) Harrera-aldia eta 3 fase.
 - 30d) Harrera-aldia eta 2 fase.
- 31 IHP-REN ARABERA, ERABILTZAILE BAKOITZARI TUTORE BAT ESLEITUKO ZAIO ADINGABEARI LAGUNTZEKO PROZESUAN ZEHAR. TUTOREA ESLEITZEN DUEN PROFESIONALA ZEIN DA?**
- 31a) Zentroko arduraduna.
 - 31b) Hezkuntza-arduraduna.
 - 31c) Koordinatzailea.
 - 31d) Psikologoa.
- 32 IHP-REN ARABERA, ADINGABEAREN HEZKUNTZA-IBILBIDEA ZEIN FASETAN AZTERTZEN ETA DISEINATZEN DA?**
- 32a) Harrera-aldian.
 - 32b) Hasierako fasean.
 - 32c) Garapen-fasean.
 - 32d) Birgizarteratze-fasean.
- 33 IHP-REN ARABERA, BHPREN (BANAKAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA) GARAPEN-FASEAK ZERI EGITEN DIO ERREFERENTZIA?**
- 33a) Erantzukizun zibilaren aitortzari.
 - 33b) Ezarritako hezkuntza-ibilbidearen sendotzeari eta garapenari.
 - 33c) Fase hori denboran mugatzeari.
 - 33d) Delitu-ekintzen erantzukizuna onartzeari ez dio erreferentziarik egiten.

34 IHP-REN ARABERA, ADINGABEA MODU POSITIBOAN INPLIKATU BADA HEZKUNTZA-PROZESUAN, DIZIPLINAKO ESPEDIENTERIK EZ BADAUKA ETA IRTETEN HASI BADA, ZEIN FASETAN SAILKATUKO ZENUKE?

- 34a) Harrera-aldian.
- 34b) Hasierako fasean.
- 34c) Garapen-fasean.
- 34d) Fase berezian.

35 IHP-REN ARABERA, NOLA BANATUKO DIRA EGUNEROKO PUNTUAK?

- 35a) Eguneroko bizitzan: 1 puntu (goizean eta arratsaldean).
- 35b) Dutxa denboran: 2 puntu.
- 35c) Meriendatzeko denboran: 3 puntu.
- 35d) Aisialdian: 4 puntu.

36 IHP-REN ARABERA, JARDUERA BATETIK KANPORA BIDLIZ GERO, ZENBAT PUNTU KENDUKO DIRA ASTEAN ZEHAR PILATUTAKO KOPURUTIK?

- 36a) 2 puntu.
- 36b) 3 puntu.
- 36c) 4 puntu.
- 36d) 5 puntu.

37 IBAIONDO HEZIKETA ZENTROAN, HEZITZAILEARENA AGINTARITZA-FIGURA DA ETA, HORRETARAKO, HONAKO HAU BALIATZEN DU:

- 37a) Justizia konponarazlearen nazioarteko arauak.
- 37b) IHPren diziplina-araubidearen esparrua.
- 37c) Gizarte eta hezkuntza arloko jardunbide egokien eskuliburua.
- 37d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

38 IHP-REN ARABERA, ESPARRU ESPEZIALIZATUAGO BATETIK, ZER BESTELAKO PROFESIONALEK ESKU HARTZEN DUTE ADINGABEEKIN?

- 38a) Soziologoek eta antropologoek.
- 38b) Psikologoek eta gizarte-langileek.
- 38c) Juristek eta Adingabeen Epaitegietako laguntzaileek.
- 38d) Terapeuta okupazionalak.

39 IHP-REN ARABERA, NOLAKOA DA HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEA?

- 39a) Zuzena eta banakakoa.
- 39b) Zeharkakoa eta banakakoa.
- 39c) Zuzena eta taldekakoa.
- 39d) Zeharkakoa eta multzokakoa.

- 40 BIZIKIDETZA-UNITATE DESBERDINEI ESLEITUTAKO HEZITZAILEEK BADITUZTE EGINKIZUN BATZUK. EGINKIZUN HORIETATIK, ZEINTZUK DAUDE JASOTA IHPN?**
- 40a) Laneratze aurreko tailerretako dinamikak ebaluatzea.
40b) Heziketa-unitateko programazioan parte hartzea eta unitate horretako jardueragitarauak ematea eta ebaluatzea.
40c) Familia-dinamiketako informazioa biltzea.
40d) Eguneroko bizitzako bilerak dinamizatzea.
- 41 IHP-REN ARABERA, HEZITZAILEAK ZERTAN LAGUNDUKO DIO ADINGABEARI?**
- 41a) Bere bizipenak egituratzen.
41b) Laneko zereginak egiten.
41c) Bere familiari buruzko informazioa biltzen.
41d) Bere gauzak txukuntzen.
- 42 ZEINTZUK DIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN NERABEEK GEHIEN KONTSUMITZEN DITUZTEN SUBSTANTZIA TOXIKOAK?**
- 42a) Alkohola, tabakoa eta kannabisa.
42b) Alkohola, tabakoa eta lasaigarriak.
42c) Alkohola, kokaina eta kanabisa.
42d) Alkohola, benzodiazepinak eta kanabisa.
- 43 SUBSTANTZIA TOXIKOAK KONTSUMITZEKO NERABEEK DITUZTEN ARRAZOI NAGUSIAK HONAKO HAUEK DIRA:**
- 43a) Kontsumoak lotzen dituzte kontsumo horien ondorio negatiboekin.
43b) Berdinen arteko taldean gizarteratzeko kontsumitzen dute.
43c) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.
43d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
- 44 ADIERAZI ZEREN DEFINIZIOA DEN HONAKO HAU: AGERKARI FISIOLGIKO, PORTAERAZKO ETA KOGNOSZITIBOEN MULTZOA, ZEINETAN SUBSTANTZIA TOXIKOEN KONTSUMOAK LEHENTASUN ERABATEKOA DUEN NERABEARENTZAT.**
- 44a) Abstinentzia-sindromea.
44b) Mendekotasun-sindromea.
44c) Balorazio kognoszitiboaren sindromea.
44d) Erantzukidetasun-sindromea.
- 45 DROGA-MENDEKOTASUN ARAZOAK DITUEN NERABEAREN GAIARI HELTZERA KOAN KONTUAN HARTUKO DUGUN PERSPEKTIBA NOLAKOA IZANGO DA?**
- 45a) Globala.
45b) Egoeraren arabera.
45c) Partziala.
45d) Familiarra.

46 NAHASMEN DISOZIALARI BURUZKO CIE-10AREN ARABERA, DIAGNOSTIKOA EGITEKO HONELAKO PORTAERAK HAR DAITEZKE OINARRI GISA:

- 46a) Delirio-ideiak, bulimia eta alkoholaren gehiegizko kontsumoa.
- 46b) Lapurretak, behin eta berriz gezurretan aritzea; eskolara huts egitea; eta etxetik ihes egitea.
- 46c) Pertzepzioaren alterazio larriak eta delirio mesianikoak.
- 46d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

47 CIE-10AREN ARABERA, NAHASMEN DISOZIAL OLDARKORRA ETA AURKA EGIN ZALEA:

- 47a) 18 urtetik gorako pertsonengan ematen da, oro har.
- 47b) Portaera oldarkorra da oso, obeditzen ez duena eta probokatzaila.
- 47c) Elikaduraren arloko nahasmenduekin batera ematen da, oro har.
- 47d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

48 CIE-10AREN ARABERA, HAURTZAROKO BINKULAZIO-NAHASMEN ERREAKTIBOARI DAGOKIONEZ:

- 48a) Autoagresioak, heteroagresioak eta tristura ez dira sarri ematen.
- 48b) Syndrome hori, gurasoengandiko gabeziaren batengatik, gehiegikeriengatik edo tratu txarregatik agertuko da.
- 48c) Gertakari psikotikoak eta haluzinazioak sarri ematen dira.
- 48d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.

49 DSM IV-AREN ARABERA, EZAUGARRI HAUETAKO BAT EZ DA IZAERAREN NAHASMEN ANTISOZIALARENA. ZEIN?

- 49a) Diagnosi horretara iritsi ahal izateko, subjektuak gutxienez 18 urte eduki behar ditu; eta nahasmendu disozial baten sintoma batzuen historia ere bai, 15 urte baino lehenagotik.
- 49b) Nahasmen antisoziala duten pertsonak zuhurtziagabeak dira eta beren edo besteen segurtasunarekiko axolagabekeria erakusten dute.
- 49c) Nahasmen antisoziala duten pertsonak beren burua botatzeko jarrera izaten dute, ahaleginak egiten dituzte edo mehatxuka ibiltzen dira behin eta berriz, edo beren burua mutilatzeko joera dute.
- 49d) Nahasmen antisoziala duten pertsonak atxilotzeko moduko egintzak, legez kanpoko jarduerak, egin ditzakete behin eta berriz.

50 LEHEN SOROSPENENKO ESKULIBURUAREN ARABERA, HAUEK DIRA B.A.S. JOKABIDEKO OINARRIZKO JARRAIBIDEAK:

- 50a) B: babestu gertakizunen lekua.
A: abisatu larrialdi zerbitzuei.
S: sorotsi lehentasun-hurrenkera bat jarraituz (konortea, arnasketa eta pultsua).
- 50b) B: bertan geratu, tokian.
A: arreta eman familiakoei.
S: segurtasuna ezarri perimetroan.
- 50c) B: baliozkoak izan esku hartzen dutenak.
A: artatu larrienak.
S: segurtasun gehiegizkoa eman adingabeei.
- 50d) Erantzun bat ere ez da baliozkoa.

51 LEHEN SOROSPENeko ESKULIBURUAREN ARABERA, BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA EGITEKO, HAUEK DIRA JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK:

- 51a) Arnasketa kontrolatu eta zirkulazioa egiaztatu.
- 51b) Begien mugimendua eta pultsua kontrolatu.
- 51c) Konbultsioak kontrolatu, baldin badaude.
- 51d) Gorakoak kontrolatu.

52 LEHEN SOROSPENeko ESKULIBURUAREN ARABERA, KANPO-ODOLJARIO AZALEKO BATEN AURREAN, ZEIN IZANGO DA TRATAMENDU OROKORRA?

- 52a) Odolari irteten uztea.
- 52b) Odoljarioa gelditu eta infekzioak saihestu, ahal dela, gaza esterilak erabilia.
- 52c) Ez dugu zuzenean konpresiorik egingo.
- 52d) 10 minutu itxaron, gutxienez, sendaketa egiteko.

53 LEHEN SOROSPENeko ESKULIBURUAREN ARABERA, ORGANISMO BATEKO EHUNAK BEROAREKIN KONTAKTUAN EGOTEAN SORTZEN DIRA ERREDURAK. HONELA SAILKATZEN DIRA:

- 53a) S. Warm-en sailkapenaren arabera.
- 53b) Erretako azalaren kolorearen arabera.
- 53c) Erreduraren sakoneraren eta hedaduraren arabera.
- 53d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

54 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018) EKINTZAK, ALDIA ETA ADIERAZLEAK EZARTZEN DITU ONDORENGOENTZAT:

- 54a) Eusko Jaurlaritzako sail batzuentzat eta hiru Foru Aldundientzat.
- 54b) Eusko Jaurlaritzako sail batzuentzat, hiru Foru Aldundientzat eta EUDELentzat.
- 54c) Eusko Jaurlaritzako sail batzuentzat eta EUDELentzat.
- 54d) Eusko Jaurlaritzako sail batzuentzat.

55 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018) EZ DU PRINTZIBIO HAUETAKO BAT JASOTZEN.

- 55a) Erantzukizuna hartzea.
- 55b) Subsidiarotasun publikoa.
- 55c) Behar den gutxienerako esku-hartzea.
- 55d) Goi-mailako interesa: banakako egokitzapena.

56 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018), GAZTE JUSTIZIAKO III. PLANAREN EBALUAZIOAN, JOERA BEZALA DESKRIBATZEN DU HONAKO HAU:

- 56a) Gazte Justiziako sisteman nesken gizataldeak gero eta protagonismo gutxiago duela.
- 56b) Askatasunaz gabetzeko neurrietan oinarritzen den esku-hartzeko eredia nabarmen sendotu dela, ingurune irekiko esku-hartzeko ereduaren aldean.
- 56c) Ingurune irekiko esku-hartzeko eredia nabarmen sendotu dela, askatasunaz gabetzeko neurrien aldean.
- 56d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

57 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018), GAZTE JUSTIZIAKO III. PLANAREN EBALUAZIOAN EZARRITAKOAREN ARABERA:

- 57a) Ingurune irekiko neurriak, neurri irmoen guztizkoaren %50 baino gutxiago dira.
- 57b) Ingurune irekiko neurriak, neurri irmoen guztizkoaren %70 baino gehiago dira.
- 57c) Ingurune irekiko neurriak, neurri irmoen guztizkoaren %90 baino gehiago dira.
- 57d) Ingurune irekiko neurriak, neurri irmoen guztizkoaren %25 baino gutxiago dira.

58 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018), GAZTE JUSTIZIAKO III. PLANAREN EBALUAZIOAN EZARRITAKOAREN ARABERA, HONAKO HAUEK DIRA GEHIEN EZARRITAKO KAUTELA-NEURRIAK:

- 58a) Gizartearentzako lanak eta hezkuntza-taldeko bizikidetzak.
- 58b) Gizartearentzako lanak eta zaintzapeko askatasunak.
- 58c) Barneratze-neurriak eta eguneko zentroetara joatea.
- 58d) Zaintzapeko askatasunak eta barneratze-neurriak.

59 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018) GAZTE JUSTIZIAKO ZENTROETARA ATXIKITAKO LANGILEEN AURREIKUSPENAREN ARABERA, LANGILE-KOPURU HANDIENA HAUENA IZANGO DA:

- 59a) Hezitzaileena.
- 59b) Irakasleena.
- 59c) Teknikari eta koordinatzaileena.
- 59d) Zerbitzuetako langileena.

60 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018) EZARRITAKOAREN ARABERA, ZEIN IZANGO 2014-2018 GAZTE PLANAREN KUDEAKETA ORGANOA?

- 60a) Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza.
- 60b) Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- 60c) Justizia Zuzendaritza.
- 60d) Herri Administrazio eta Modernizazio Zuzendaritza.

61 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018) ILDO ESTRATEGIKO BEZALA DEFINITZEN DU HONAKO HAU:

- 61a) Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredu publikoa.
- 61b) Erantzukizun mistoa eta kudeaketa-eredu pribatua.
- 61c) Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredu mistoa.
- 61d) Erantzukizun mistoa eta kudeaketa-eredu publikoa.

62 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAK (2014-2018) ILDO ESTRATEGIKOTZAT ZEHAZTEN DITU HONAKO HAUEK:

- 62a) Prebentzioa eta subsidiariorotasuna.
- 62b) Prebentzioa eta esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak.
- 62c) Subsidiariorotasuna eta esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak.
- 62d) Diziplinartekotasuna eta kultura-artekotasuna.

63 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAREN (2014-2018) ARABERA, HONAKO HAUEK DIRA GAZTE JUSTIZIAREN PRINTZPIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN:

- 63a) Zigor-erantzukizuneko eredia, behar den gutxieneko esku-hartzea eta erantzukizuna hartzea.
- 63b) Zigor-erantzukizuneko eredia, gaikuntza eta lehengoratzea.
- 63c) Zigor-erantzukizuneko eredia, erantzukizuna hartzea eta gaikuntza.
- 63d) Behar den gutxieneko esku-hartzea, lehengoratzea eta gaikuntza.

64 ADINGABEEN ERANTZUKIZUN PENALA ARAUTZEN DUEN URTARRILAREN 12KO 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, NORI DAGOKIO ADINGABEAK EGITATEETAN ZEIN PARTE-HARTZE IZAN DUEN BALIOESTEA ETA HEZKUNTZA-IZAERAKO NEURRI ZEHATZAK PROPOSATZEA HELBURU DUEN INSTRUKZIO-JARDUNA?

- 64a) Talde teknikoari.
- 64b) Fiskaltzari.
- 64c) Entitate publikoari.
- 64d) Adingabeen epaileari.

65 ENTZUNALDIAN ADINGABEAK EMANDAKO ADOSTASUNA DELA-ETA, 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) HONAKO HAU EZARTZEN DU:

- 65a) Gerta daiteke letraduak bat ez egitea adingabeak emandako adostasun horrekin.
- 65b) Fiskaltzak, adingabearen interesa kontuan hartuta, entzunaldian aurrera egitea erabaki dezake.
- 65c) Adingabeen epaileak beti jarraitu behar du defentsako abokatuak ezarritako irizpidea.
- 65d) Entzunaldian adingabeak emandako adostasunarekin amaitutzat joko da beti ikustaldia.

66 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, HONAKO HAU EZ DAGOKIO ADINGABEEN EPAILEARI:

- 66a) Neurriak betearazteko programak onartzea.
- 66b) Neurriak berrikusteko proposamenak ebaztea.
- 66c) Neurriak betearazteko emandako ebazpenen aurkako errekurtsioak ebaztea.
- 66d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

67 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, NEURRIAK PILATZEN BADIRA, LEHENTASUNEZ BETEARAZIKO DIRA HONAKO HAUEK:

- 67a) Erregimen itxian barneratzeko neurriak.
- 67b) Zaintzapeko askatasunaren neurriak.
- 67c) Barneratze terapeutikoko neurriak.
- 67d) Gizartearentzat lan egiteko neurriak.

68 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, BARNERATZE-NEURRI BAT BERTAN BEHERA UTZ DAITEKE EDO ORDEZKATU EGIN DAITEKE. NORK ESKATUTA?

- 68a) Fiskaltzak.
- 68b) Akusazio partikularreko letraduak.
- 68c) Entitate publikoak.
- 68d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

69 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, FALTA OSO LARRIENGATIK EZAR DAITEZKEEN ZEHAPEN BAKARRAK HONAKO HAUEK DIRA:

- 69a) Bi egunetik zazpi arteko epealdian, adingabea taldetik banantzea.
- 69b) Hiru asteburutik sei arteko epealdian, adingabea taldetik banantzea.
- 69c) Hamabost egunetik hilabete arteko epealdian, adingabea asteburuko irteerez gabetzea.
- 69d) Hamabost egunetik hilabete arteko epealdian, adingabea aisialdiko irteerez gabetzea.

70 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, BARNERATZE-NEURRIAK BETEARAZTEN BADIRA ZENTROETAN, ZENTRO HORIEN JARDUERAK HONAKO PRINTZIPIO HAU IZANGO DU ABIABURU:

- 70a) Kanporatze-printzipioa.
- 70b) Berdintasun-printzipioa.
- 70c) Pertsonalizazio-printzipioa.
- 70d) Birgizarteratze-printzipioa.

71 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, IZAPIDEAK EGITERAKOAN EPAILEAK ESPEDIENTEAREN ISIL-GORDEA DEKRETATZEN BADU, ADINGABEAREN LETRADUAK OSO-OSORIK JAKIN BEHAR DU ESPEDIENTEAREN EDUKIA. ZEIN UNETAN?

- 71a) Fiskaltzak alegazioak egin aurretik.
- 71b) Fiskaltzat kautela-neurriak eskatzen dituenean.
- 71c) Alegazioen izapidea burutzerakoan espedientea helarazten zaionean.
- 71d) Epaeak entzunaldi publikora deitzen duenean.

72 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, NORI DAGOKIO ADINGABEEN EPAILEEK EUREN EPAI IRMOETAN HARTUTAKO NEURRIAK BETEARAZTEKO ESKUMEN ADMINISTRATIBOA?

- 72a) Justizia Ministerioari
- 72b) Autonomia-erkidegoei.
- 72c) Foru-aldundiei.
- 72d) Udalerriei.

73 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, NEURRIAK BETEARAZI BEHAR DIRENEAN ESPEDIENTE PERTSONAL BAT BAKARRIK IREKIKO ZAIO ADINGABEARI. NORK EZINGO DU ESKURATU ESPEDIENTE HORI?

- 73a) Arartekoak.
- 73b) Akusazio partikularrak.
- 73c) Fiskaltzak.
- 73d) Neurriak betetzen dituen adingabeak.

74 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) EZARRITAKOAREN ARABERA, BARNERATZEKO KAUTELA-NEURRIA HARTZEKO, HONAKO HAU EZ DA KONTUAN HARTUKO:

- 74a) Egitateen larritasuna.
- 74b) Ihes egiteko arriskua egotea.
- 74c) Adingabeak aurretik beste egitate larri batzuk egin izana.
- 74d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

75 UZTAILAREN 30EKO 1774/2004 ERREGE DEKRETUAK ADINGABEEN ERANTZUKIZUN PENALARI BURUZKO URTARRILAREN 12KO 5/2000 LEGE ORGANIKOAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DU. ERREGE DEKRETU HORREN ARABERA, ZENBATERO EGINGO DIRA, GUTXIENEZ, JARRAIPEN-TXOSTENAK?

- 75a) Asteburuetakako egonaldien kasuan, txosten bat betetako 6 asteburu bakoitzeko.
- 75b) Barneratze itxiko kasuan, txosten bat bi hilerik behin.
- 75c) Barneratze terapeutikoaren kasuan, txosten bat lau hilerik behin.
- 75d) Barneratzeko neurrien kasuan, txosten bat hiru hilerik behin.

76 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, BARNERATZE TERAPEUTIKOAREN HELBURUA DROGA TOXIKOEN MENDEKOTASUNA GAINDITZEA BADA, ETA ADINGABEAK EZ BADITU KONTROLAK EGIN NAHI, ZER EGINGO DU ENTITATE PUBLIKOAK?

- 76a) Tratamendua bertan behera utzi eta adingabeen epaileari jakinaraziko dio.
- 76b) Tratamendua hasiko du, adingabearen ezezkoa gorabehera.
- 76c) Tratamendua ez du bertan behera utziko, adingabearen ezezkoa gorabehera.
- 76d) Neurria aldatzeko eskatuko du.

77 1774/2004 ERREGE DEKRETUAK ERLIJO-LAGUNTZARI BURUZ ADIERAZTEN DU:

- 77a) Kristau erlijio-laguntza bermatzen da, baina ez gainontzeko konfesioena.
- 77b) Adingabeak, praktikatzen dutela adierazi duten konfesioaren ekintzetara joatera behartuak izan daitezke.
- 77c) Gobernuak onartu duen lan-egutegian jasotako jai-egunak bakarrik errespetatu behar dira.
- 77d) Adingabe guztiak daukate erregistratutako erlijio-konfesio baterako eskubidea

78 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, ADINGABEEK ZENBAT DEI EGIN AHAL IZANGO DITUZTE, GUTXIENEZ?

- 78a) Bi astean, eta 5 minutuko iraupena izango dute, gutxienez.
- 78b) Bi astean, eta 10 minutuko iraupena izango dute, gutxienez.
- 78c) Lau astean, eta 5 minutuko iraupena izango dute, gutxienez.
- 78d) Lau astean, eta 10 minutuko iraupena izango dute, gutxienez.



79 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, ZENTROKO ARDURADUNAK BAIMEN BEREZIA EMATEN BADIO ADINGABEARI, ERREGIMEN ITXIAN DAUDENEN KASUAN, ...

- 79a) Beharrezkoa izango da Fiskaltzaren baimena.
- 79b) Beharrezkoa izango da Guardiako Epaitegiaren baimena.
- 79c) Beharrezkoa izango da eskumena duen adingabeen epailearen baimena.
- 79d) Nahikoa da eskumena duen Adingabeen Epaitegiari jakinaraztea.

80 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, HONAKO HAUEK DIRA ERABIL DAITEZKEEN KONTENTZIO-NEURRIAK:

- 80a) Euste mekanikoa.
- 80b) Erasoen aurkako espraiak.
- 80c) Taldetik bereiztea kautelaz.
- 80d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

81 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, ZERTARAKO ERABILIKO DIRA KONTENTZIO-NEURRIAK?

- 81a) Indarkeriazko ekintzak edo lesioak saihesteko.
- 81b) Desobedientzia-ekintzak eragozteko.
- 81c) Familiarrei deiak egiteko jarkitzearen aurrean.
- 81d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

82 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, ZENTROAN SARTUTAKOAN, ZER JASOKO DUTE ADINGABEEK?

- 82a) Epaiaren kopia bat.
- 82b) 5/2000 Lege Organikoaren kopia bat.
- 82c) Eskakerak, kegak edo errekursoak aurkezteko bideei buruzko informazioa.
- 82d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

83 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, BALDIN ETA ZENTROKO BARNE-ARAUDIAK BERARIAZ DEBEKATZEN EZ BADU, SUBSTANTZIA EDO GAUZA HAUEK EZ DAUDE DEBEKATUTA ADINGABEEN ZENTROETAN:

- 83a) MP3-ak.
- 83b) Alkoholdun edariak.
- 83c) Substantzia psikotropikoak.
- 83d) Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

84 1774/2004 ERREGE DEKRETUAK HONAKO HAU EZARTZEN DU IRTETEKO BAIMEN ARRUNTEI DAGOKIENEZ:

- 84a) Erregimen erdi irekian barneratuta daudenen baimen arruntak, gehienez ere 50 egunekoak izango dira urteko.
- 84b) Erregimen irekian barneratuta daudenen baimen arruntak, gehienez ere 50 egunekoak izango dira urteko.
- 84c) Baimen bakoitza beti izango da, gehienez ere, 15 egunekoa.
- 84d) Baimen bakoitza beti izango da, gehienez ere, 30 egunekoa.

85 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, TALDETIK BANANTZEKO ZEHAPENARI DAGOKIONEZ, ...

- 85a) Kontentzio-gelan beteko da.
- 85b) Haurdun dauden adingabeei aplikatu ahal izango zaie.
- 85c) Ez da ezein kasutan bertan behera utziko.
- 85d) Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

86 1774/2004 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, DIZIPLINA-ESPEDIENTE BEREAN EDO DESBERDINETAN EZARRITAKO ZENBAIT ZEHAPEN ELKARREN ONDOREN BETEKO BADIRA, ADINGABEA INOLAZ ERE EZ DA EGONGO SEGIDAN:

- 86a) Taldeetik bananduta zazpi egun baino gehiago edo bost asteburu baino gehiago.
- 86b) Bi hilabete baino gehiago asteburuetakoko irteerarik gabe.
- 86c) Hilabete baino gehiago zentroko aisialdiko jarduerarik gabe.
- 86d) Hiru hilabete baino gehiago aisialdiko irteera programaturik gabe.

87 1774/2004 ERREGE DEKRETUAK HONAKO HAU EZARTZEN DU FAMILIARREN KOMUNIKAZIO ETA BISITEI DAGOKIENEZ:

- 87a) Bisita-ordutegia nahikoa izango da gutxienez 45 minutuko komunikazioa ahalbidetzeko.
- 87b) Bisita-ordutegia nahikoa izango da gutxienez 60 minutuko komunikazioa ahalbidetzeko.
- 87c) Hilean behin, gutxienez, familiako elkarbizitza-bisita bat egon ahal izango da, eta hiru ordukoa izango da, gutxienez.
- 87d) Hilean behin, gutxienez, familiako elkarbizitza-bisita bat egon ahal izango da, eta bi ordukoa izango da, gutxienez.

88 1774/2004 ERREGE DEKRETUAK HONAKO HAU EZARTZEN DU ADINGABEEN, HAIEN ARROPEN ETA GAUZEN ERREGISTROARI BURUZ:

- 88a) Familiakoak edo legezko ordezkariak bertan daudela baino ezingo da egin.
- 88b) Gela berean eta aldi berean bi adingaberi baino ezingo zaie erregistroa egin.
- 88c) Zentroko arduradunaren erabakiz egin ahal izango dira erregistroak zentroan edo ospitaleko izpien gela batean.
- 88d) Adingabeari erregistroa egin bazaio hura erabat biluztuta, erregistroaren eta haren emaitzen berri emango zaio adingabeen epaileari.

89 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN KONTRATUDUNEN KOLEKTIBOENTZAKO 2010-2011RAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK 44. ARTIKULUAN HONAKO HAU EZARTZEN DU OHIKO ETXEBIZITZA ALDATZEARI DAGOKIONEZ:

- 89a) Lanegun bat hartzeko eskubidea izango du langileak.
- 89b) Erroldatze-datatik hasi eta egutegiko 15 eguneko epean hartuko da.
- 89c) Erroldatze-datatik hasi eta 15 laneguneko epean hartuko da.
- 89d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.



90 HITZARMEN KOLEKTIBOAREN ARABERA, HONAKO HAU EZ DA NAHITAEZKO BETEBEHAR PUBLIKOAK BETETZEKO BAIMENA:

- 90a) Notarioaren hitzordura joatea.
- 90b) Pasaporte berritzera joatea.
- 90c) Komisaldegiko zitazio batera joatea.
- 90d) Gidabaimena eskuratzeko azterketara joatea.

91 HITZARMEN KOLEKTIBOAREN ARABERA, LANGILE FINKOEK ESKUBIDEA IZANGO DUTE ESZEDENTZIA HARTZEKO SEME EDO ALABA BAKOITZA ZAINTEKO, ...

- 91a) Norberarena bakarrik, ez adopzioan hartutakoa bada.
- 91b) Norberarena edo adopzioan hartutakoa bakarrik, ez harrerakoa bada.
- 91c) Norberarena, adopzioan hartutakoa edo behin betiko harrerakoa bada, baina ez adopzio-aurreko harrerakoa bada.
- 91d) Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

92 HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZARTZEN DITU LANEKO FALTAK ETA ZEHAPENAK, ETA FALTA LARRITZAT JOTZEN DA HONAKO HAU:

- 92a) Zerbitzuetako lokalak, materiala eta dokumentuak behar bezala ez zaintzea, arduragabekeriak jokatzea.
- 92b) Lana uztea justifikatutako arrazoirik izan gabe.
- 92c) Zerbitzuko datuak eta informazioa nahita faltsutzea.
- 92d) Agindutako kudeaketetan inoren konfiantzaz baliatzea eta leial ez izatea.

93 HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZARTZEN DITU LANEKO FALTAK ETA ZEHAPENAK, ETA OSO LARRITZAT JOTAKO FALTA BATI JARRIKO ZAION ZEHAPENA, HONAKO HAU IZANGO DA:

- 93a) Enplegua eta soldata etetea bi egunez.
- 93b) Enplegua eta soldata etetea hamabost egunez.
- 93c) Enplegua eta soldata etetea bi hilabetez.
- 93d) Enplegua eta soldata etetea lau hilabetez.

94 GIZARTE HEZITZAILEEN KODE DEONTOLOGIKOAREN ARABERA, PRINTZPIO DEONTOLOGIKO OROKOR GISA EZ DAGO EZARRITA HONAKO HAU:

- 94a) Gizarte-hezkuntza jardueraren xede diren subjektuekiko errespetuaren printzipioa.
- 94b) Koherentzia instituzionalaren printzipioa.
- 94c) Eginkizunen eta koordinazioaren arteko osagarritasunaren printzipioa.
- 94d) Beharrezko esku-hartze gutxienekoaren printzipioa.

- 95 ADMINISTRAZIO PROZEDURARI BURUZKO 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PROZEDURA BATEKO INTERESDUNEI DAGOKIENEZ, ESKAERA, IDAZKI EDO KOMUNIKAZIO BATEAN INTERESDUN BAT BAINO GEHIAGO BADA, EGIN BEHARREKO JARDUNAK NOLA EGINGO DIRA?**
- 95a) Haiek berariaz aukeratzen duten ordezkari edo interesdunarekin, eta, halakorik ezean, zerrendan lehenengo tokian agertzen denarekin.
95b) Interesdun bakoitzarekin, banaka-banaka.
95c) Haiek berariaz aukeratzen duten ordezkari edo interesdunarekin, eta, halakorik ezean, interesdun bakoitzarekin, banaka-banaka.
95d) Eskieran adierazitako helbide bakoitzean.
- 96 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ORO HAR, NORK EZ DU NAHITAEZ ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin BITARTEKO ELEKTRONIKOZ HARREMANAK IZATEKO BETEKIZUNA?**
- 96a) Pertsona juridikoek.
96b) Pertsona fisikoek.
96c) Nortasun juridikorik gabeko entitateek.
96d) Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa dutenek, jarduera hori dela-eta egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako.
- 97 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEN INSTRUKZIOARI BURUZ, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**
- 97a) Instrukzio-egintzak ofizioz eta bitarteko elektronikoz egingo ditu prozedura izapidetzen ari den organoak.
97b) Behin instrukzio-fasea hasita, interesdunek ezingo dute alegaziorik egin, ez eta judizioko beste dokumentu edo elementurik aurkeztu ere.
97c) Interesdunek parte hartu behar duten instrukzio-egintzak haiei komenigarrien zaien moduan egin behar dira, eta haien lanarekin edo betebeharrak profesionalekin ahal den neurrian bateragarri izateko moduan.
97d) Instrukzio-organoak behar diren neurriak hartuko ditu prozeduran osotara errespetatu daitezkeen prozedurako interesdunen kontraesan- eta berdintasun-printzipioak.
- 98 DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA (DBLO), INTERESDUNAREN ADOSTASUNEAN OINARRITUTAKO TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ, ERANTZUN HAUETAKO ZEIN DA OKERRA?**
- 98a) Interesdunaren adostasuntzat joko da interesdunaren borondate-adierazpen aske, espezifikoa, arrazoitua eta zalantzarik gabekoa, deklarazio edo egintza positibo argi batez egin, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena.
98b) Datuen tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritu nahi bada helburu bat baino gehiagorako, modu espezifikoa eta zalantzarik gabe jasota geratu behar da baimena helburu horietako bakoitzerako ematen dela.
98c) Adingabe baten datuen tratamendurako, berak emandako adostasunean oinarritu ahal izango da baldin eta hamasei urte baino gehiago baditu.
98d) Datuen tratamendurako arduradunek eta eragileek, bai eta tratamenduaren edozein fasetan esku hartuko duten pertsona guztiek ere, konfidentzialtasun-betebeharra daukate.

99 DBLOREN ARABERA, INTERESDUNARI OINARRIZKO INFORMAZIOA EMAN BEHAR ZAIO BERE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZ. ZER INFORMAZIO EMAN BEHAR ZAIO INTERESDUNARI?

- 99a) Datuak emateak dakartzan ondorioei buruzko oinarrizko informazioa.
- 99b) Tratamenduaren helburuari buruzko oinarrizko informazioa
- 99c) Tratamenduari aurka egiteko eskubideari buruzko oinarrizko informazioa.
- 99d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

100 BERDINTASUNARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (4/2005), PERTSONA BAT, HAREN SEXUA DELA-ETA, ANTZEKO EGOERAN DAGOEN BESTE PERTSONA BAT BAINO MODU TXARRAGOAN TRATATU DENEAN EDO TRATATU DAITEKEENEAN, ZER EGONGO DA TARTEAN?

- 100a) Zuzeneko diskriminazioa.
- 100b) Zeharkako diskriminazioa.
- 100c) Diskriminazio positiboa.
- 100d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

ORDEZKO GALDERAK

101 APIRILAREN 21EKO 80/2009 DEKRETUAREN ARABERA, NOREN ZEREGINA DA HEZIKETA TALDEKO ADINGABEEN TUTORETZA-LANAK EGITEA?

- 101a) Hezitzaileena.
- 101b) Koordinatzaileena.
- 101c) Diziplina anitzeko lantaldearena.
- 101d) Zentroko zuzendaritzarena.

102 GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANAREN (2014-2018) ARABERA, NORI DAGOKIO PLANAREN EBALUAZIO-PROZESUAREN LIDERGOA?

- 102a) Euskal Estatistika Erakundeari.
- 102b) Justizia Zuzendaritzari.
- 102c) Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari.
- 102d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari.

103 LEHEN SOROSPENENKO ESKULIBURUAREN ARABERA, HAUSTURA BAT GERTATUZ GERO, HAUTSITAKO GORPUTZ-ADARRA DAGOEN POSIZIOAN IMMOBILIZATU BEHAR DUGU. HONAKO HAU DA IMMOBILIZAZIOAREN HELBURUA:

- 103a) Lesioaren odol-fluxua ez areagotzea.
- 103b) Ubeltasunak saihestea.
- 103c) Hautsitako atalaren hantura eragitea.
- 103d) Mina arintzea, lesio gehiago jasateko aukerak gutxitzea eta shock-arriskua murriztea.



104 CIE-10AREN ARABERA, HAURTZAROKO BANAKETA-ANTSIETATEAREN NAHASMENEAN GERTATZEN DA HONAKO HAU:

- 104a) Ez da kezka arrazoirik gabea ematen, ez ote duen -okerren bat gertatu dela-eta- esanahi handiko nor edo norengandik banatu beharra izango.
- 104b) Ez dira behin eta berriz sintoma somatikoak ematen (goragalea, botaka egitea edo buruko mina), esanahi handiko nor edo norengandik banatzeagatik.
- 104c) Gehiegizko ondoeza ematen da, behin eta berriz, garrantzi handikoa zaion nor edo norengandik banatu baino lehenago, banatu bitartean edo banatu eta segituan.
- 104d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

105 KANABISAREN ABUSU MODERATUAREN SINTOMAK HONAKO HAUEK DIRA:

- 105a) Begiak gorrituta, begi-niniak dilatatuta eta umore-aldaketa bortitzak.
- 105b) Ideien ihesa.
- 105c) Kontzentrazio obsesiboa zereginetan.
- 105d) Muskulu-uzkurdura handia.

106 IHP-REN ARABERA, ADINGABEEKIN EGINDAKO ESKU-HARTZEAK ZER BULTZATU BEHAR DU?

- 106a) Erantzunak, non alderdi zehatzailea nagusituko den.
- 106b) Erantzunak, non alderdi hezitzailea nagusituko den.
- 106c) Erantzunak, non alderdi zigortzailea nagusituko den.
- 106d) Erantzunak, non atzeraeragina nagusituko den.

107 IHP-REN ARABERA, PUNTUAZIO-SISTEMA TRESNA BAT DA ADINGABEEN EBOLUZIOA BALIOESTEKO FASEEN SISTEMAN. ZER HARTU BEHAR DA KONTUAN?

- 107a) Ez badu jarduera batean parte hartzen, puntuazio positiboak emateko aukera dago.
- 107b) Ez badu jarduera batean parte hartzen, ez zaio puntuaziorik emango.
- 107c) Ez badu jarduera batean parte hartzen, puntuazio negatiboak emateko aukera dago.
- 107d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

108 UZTAILAREN 30EKO 1774/2004 ERREGE DEKRETUAK ADINGABEEN ERANTZUKIZUN PENALARI BURUZKO URTARRILAREN 12KO 5/2000 LEGE ORGANIKOAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DU. ERREGE DEKRETU HORREK 58. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, HONAKO HAUEI EZ DAGOKIE ZENTROAK IKUSKATZEKO EGINKIZUNA:

- 108a) Polizia-kidegoei.
- 108b) Adingabeen epaileei.
- 108c) Fiskaltzari.
- 108d) Arartekoari.

109 ADINGABEEN ERANTZUKIZUN PENALARI BURUZKO URTARRILAREN 12KO 5/2000 LEGE ORGANIKOAK (AEPLO) 2. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, NOREN ESKUMENA DA LEGE HAU APLIKAGARRI DUTEN PERTSONEN EGINTZAK DIRELA-ETA SORTUTAKO ERANTZUKIZUN ZIBILAK EPAITZEA?

- 109a) Instrukzioko epaitegiek.
- 109b) Lehen auzialdiko epaitegiek.
- 109c) Adingabeen epaitegiek.
- 109d) Zibil arloko epaitegiek.

110 GIZARTE HEZITZAILEEN KODE DEONTOLOGIKOAREN ARABERA, ARAU DEONTOLOGIKO OROKOR GISA DAGO EZARRITA HONAKO HAU:

- 110a) Gizarte-hezkuntza jardueren prozesuan, harreman profesionaletik haragoko lotura oro saihestuko da pertsonetikiko jardunean, baldin eta mendekotasun afektiboa edo intimoa badakarte.
- 110b) Gizarte-hezkuntza jardueren prozesuan, harreman profesionaletik haragoko lotura oro saihestuko da pertsonetikiko jardunean, salbu eta lehenagotik ere familia-harremana badago.
- 110c) Gizarte-hezkuntza jardueren prozesuan, harreman profesionaletik haragoko lotura oro saihestuko da pertsonetikiko jardunean, salbu eta zentroan barneratuta dagoen adingabearen familiak baimena eman badu.
- 110d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

Educadora/educador del Centro Educativo Ibaiondo

**1^{er} ejercicio
Teórico
Modelo A**

Fecha: 18/01/2019

1 EL DECRETO 80/2009, DE 21 DE ABRIL, SOBRE CENTROS EDUCATIVOS DE CUMPLIMIENTO DE MEDIDAS PRIVATIVAS DE LIBERTAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAIS VASCO, TIENE COMO OBJETO REGULAR LOS REQUISITOS:

- 1a) Materiales, estructurales y de ocupación que deberán reunir los centros para la ejecución de las distintas medidas en justicia juvenil.
- 1b) Materiales, estructurales y de ocupación que deberán reunir los centros para la ejecución de las distintas medidas privativas de libertad.
- 1c) Materiales, funcionales y de personal que deberán reunir los centros para la ejecución de las distintas medidas en justicia juvenil.
- 1d) Materiales, funcionales y de personal que deberán reunir los centros para la ejecución de las distintas medidas privativas de libertad.

2 SEGÚN EL DECRETO 80/2009, ES FINALIDAD DE LOS CENTROS:

- 2a) El cumplimiento de las medidas de internamiento, internamiento terapéutico, en el régimen establecido por la autoridad judicial, y de permanencia de fin de semana.
- 2b) El cumplimiento de las medidas de internamiento, internamiento terapéutico, en el régimen establecido por el Departamento competente en materia de Servicios Sociales, y de permanencia de fin de semana.
- 2c) El cumplimiento de las medidas de internamiento, en el régimen establecido por el Juzgado de Familia competente, y de permanencia de fin de semana.
- 2d) El cumplimiento de las medidas de internamiento, internamiento terapéutico, en el régimen establecido por el Departamento competente en materia de Justicia, y de permanencia de fin de semana.

3 SEGÚN EL DECRETO 80/2009, LA EJECUCIÓN DE LAS MEDIDAS JUDICIALES SE REALIZARÁ:

- 3a) Bajo el control del Juzgado de Menores o de Familia competentes, en los términos de lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley Orgánica 5/2000.
- 3b) Bajo el control del Juzgado de Menores competente, en los términos de lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley Orgánica 5/2000.
- 3c) Bajo el control del Departamento competente en materia de Justicia, en los términos de lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley Orgánica 5/2000.
